



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2014ko irailaren 15eko EBAZPENA, 2014-2015 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko ekainaren 10eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen lehen, eta bigarren berritzeak ebazten dituenak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko ekainaren 10eko Aginduak, 2014-2015 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntzak berritzeko eta laguntza berriak emateko prozesua arautu eta deitzen duenak, xedatutakoaren arabera, pertsonal ikertzailearen hobekuntza-programaren barruan 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturtean hasieran eman diren dirulaguntzak berrituko dira.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta, 2014ko ekainaren 10eko aginduak, 2014-2015 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntza berriak eta horien berriz ematea deitzen dituenak, xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren lehenengo berritzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Kontratu horiek 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldia hartuko dute eta onuradunak 28.000 euro gordin jasoko ditu urtean.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzaren bigarren berritzea eta dagokien ezarpen zentroa zein kontratuak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea.

Kontratu horiek 2014ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldia hartuko dute eta onuradunak 28.000 euro gordin jasoko ditu urtean.

Hirugarrena.- Berritze horien dirulaguntzak ordaintzea xedapen honen I. eta II. eranskinetan aurreikusten diren aplikazio-zentroei, ekainaren 10eko Aginduak ezartzen duen moduan eta betiere,

kontratuaren, edo haren zabaltzearen kopia Politika Zientifikoko Zuzendaritzan jaso eta gero.

Laugarrena.- 2014ko ekainaren 10eko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari gorako errekurtsua jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saileko web-orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 15a.



Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea,
Itziar Alcorta Idiaquez